# HAPO

## Hiri Antolamenduko Plan Orokorra




Ekainaren 21ean, osteguna

18:00etan Udaletxean

*Anima zaitez!*

ZESTOAKO UDALA

**IDAZKETA-TALDEA**

Taldea diziplina desberdinetako profesionalez osatutako lan-talde bat da eta arkitekturan eta lurralde- eta hiri-plangintzan aditua. Arlo horretan arazoak aztertu eta irtenbideak planteatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu.

Hamar urtetik gora daramatza Euskal Herrian, Nafarroan, Errioxan, Murtzian, Asturiasen, etab. lan egiten. Nagusiki Plan Orokorrak eta Plan Bereziak lantzen.

Enpresak Bilbon, Iruñean eta Donostian bulegoak dauzka.

Estudio de Renovación y Desarrollos Urbanos s.l.

hiritek
hirigintza teknikariak s.l.p.

EKOS, ASESORIA E INVESTIGACION MEDIOAMBIENTAL, S.L. – EECO enpresaren esku dago Ingurumen-Ebaluazio Estrategikoa. EKOSek esperientzia zabala dauka arlo horretan eta, batez ere, Euskal Herrian.

Enpresa honek Zornotzan du egoitza.

EKOS

# ¿ZER DA HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKOR (HAPO) BAT?



-HAPO bat **hiria planifikatzeko tresna bat da**, **dokumentu arautzaile** bat, **udalerri** mailakoa.

**Zestoako** azalera osoan ezartzen da **(43,66 Ha).**

-HAPOaren **sustatzailea Zestoako Udala** da.

-HAPOak **udalerri proiektu bat zehaztuko du**: udalerriaren garapena nola aurreikusten den. Plan xehatuak eta hirigintzako lizentziak HAPOean ezarritakoaren menpe egongo dira.

**Aurreikuspenak 8-12 urte inguruko indarraldirako egingo dira.**

-HAPOak **izaera egituratzailea** duen dokumentu bat da

**Oinarrizko dokumentua da, Udalerri osoko antolamendurako, era orokor eta bateratuan – Malgutasuna.**

-HAPOaren **eginkizun** dira:

- -Lurzorua sailkatzea
- -Lurzorua kalifikatzea (kategoriak)
- -Hirigintza-jarduketarako eremuak mugatzea eta bere zehaztapenak (eraikigarritasuna, baldintzak… ) ezartzea
- -Bere garapena programatzea
- -Kultura eta natura-ondarea babesteko neurriak aurreikustea
- -Ekipamendu publikoetarako azalera gordetzea
- -…

**NON?**
**ZER?**
**ZENBAT?**
**NOLA?**

**NOIZ?**

**Bere gutxieneko edukia:**
-Informazio/justifikazio-memoria
-Ingurumen-izapideak betetzearen justifikazio-memoria
-Ekonomia- eta Finantza-bideragarritasun Azterlana
-Beste batzuk: Ordenantzak eta Katalogoa

-Informazio-planoak
-Egiturazko antolaketa-planoak
-Antolaketa xehatuko planoak

# ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

**HAPO**

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO), **hirigintza antolamenduko tresna orokor** bat da. Bere zeregin nagusia **lurzoruaren sailkapena** ezartzea da (hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina), dagokion **araubide juridikoari jarraiki**, eta horrez gain, **hiri-antolamenduko hartutako oinarrizko elementuak** zehazten ditu, baita garapenerako **programa** ere.

Kasu honetan, Zestoan (43,66 Ha), agiri batean (idatzizkoa eta grafikoa) etorkizuneko **diseinua eta baldintzak jasoko** ditu. Erabakitzear dagoen etorkizuna barne hartzen du eta baliteke garapenak jasotzea edo besterik gabe, horiek finkatu eta hobetzea.

Zestoako etorkizuneko hiri-antolamendu eta zehazpen horiek oso lan korapilatsua dira, izan ere, industria, egoitza eta aisialdirako eremu berriak jasotzeaz gain, gaur egun daudenak ere barne hartzen ditu, lurralde naturalarekin batera. Planak planteatutako proposamenak gauzatzeko **erritmo** eta **kudeaketa egokiak** zehaztu behar ditu. Horretarako **Ekonomia eta Finantzako Azterketa** eta proposamenei dagokien **Etapa Plana** izango ditu.

Horretaz gain, Ingurumenaren gaineko **Ingurune-Ebaluazio Estrategikoaren (IEE) Agiria** egingo da. Agiri hori proposamena martxan jartzeak izan ditzakeen ondorio positiboak eta negatiboak antzeman eta ebaluatzeko egiten da, ondorio negatiboak ekidin, arindu edo kontrolatzeko eta positiboak sustatzeko neurriak zehazteko.



# *INDARREAN DAUDEN ARAU SUBSIDIARIOAK (AS)*

Indarrean dauden Zestoako Arau Subsidiarioak (AS) **1996.** urtean behin betiko onartu ziren (etete partziala 2002. urtera arte).

22 urteko indarraldian zehar behin betiko onartutako **13 aldaketa** izan ditu.

Plangintza hartatik, **491 etxebizitza** inguru geratzen dira egin gabe (batez ere, "A.B.R1 Arroa Behea" eta "R.6 Idiazpi Oeste" eremuetan).

**Jarduera ekonomikoari** dagokionez, **11,21 Ha** geratzen dira okupatu gabe ( gehien bat "A.B.S.T1 Guardi Zahar" eta "A.B.I.1 Sansinenea-erreka" eremuetan.

Bi Landa Gune mugatzen dira: "Bedua" eta "Ibañarrieta".





# LEGEGINTZAKO ESPARRUA

| | |
|---|---|
| **ESTATUKOA** | 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena. |
| **ERKIDEGOKOA** | **2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.** |
| | 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten presako neurriei buruzkoa. |
| | 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, Hirigintza-jarduerez sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte-hartzea aldatzekoa. |
| | 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, Hirigintzako Estandarrei buruzkoa. |
| | 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena. |
| | 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa. |
| | 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena. |

# NOLA LANTZEN DA HERRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKOR BAT?

**HASIERA** → **AMAIERA**

*90. Artikulua (Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea)*

**HAPO**

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*

Herritarren Parte-hartze Programa

Jendaurreko erakustaldia - Iradokizunak

Jendaurreko erakustaldia - Alegazioak

Txostena EAELAB

***1. AURRE-AURRERAKINA + HASIERAKO DOKUMENTUA(IEE)***

Fase honetan, idazketa- taldeak Plana egiteko garrantzitsua izan daitekeen informazio guztia **biltzen** du. (Plangintzaren eta eragina daukaten Legeen Analisia, Lurraldea eta Hiri Analisia, Zestoako datuen bilketa, besteak beste).

***2. AURRERAKINA***

Puntu honetan udalerriaren edo bere herriguneen **ikuspegi orokorraren** gaineko ideiak garatzen dira. Aurrerakin Agiriaren aurkezpena Planak gero zehaztu beharko duenaren irudi generiko (baina behin betiko) bat lortzen saiatzen da. Hemen parte-hartzearen bitartez proposamenak egitea lortu nahi da. Ekarpenak egin behar dira, eta asmo orokor globaleko agiri batzuk sortu.

***3. HASIERAKO ONESPENA + IAE (IEE)***

Fase honetatik aurrera, Aurrerakineko iradokizunak jaso ondoren, eta behin betiko onespena baino lehen, Plana **proposamen partikularren xehetasunetan sakontzen hasten da**, lehenago Aurrerakin fasean markatutako jarraibide orokorrak jarraituz. Une honetan hasi behar da xeheki ñabartzen Zestoako errealitateari dagokionez. Une honetan eskatuko da, eta gero bereganatu, IEEan eman beharreko **Ingurumen Memoria**.

***4. BEHIN-BEHINEKO ONESPENA***

Fase honen hasieran aurreko faseko **alegazioak jasotzen dira**. Idazketa-taldeak, Udalean jasotzen diren alegazioak ikusita, alegazioen oinarrizko edukiak laburbiltzen dituen agiri bat egingo du. Azkenik, idazketa-jasotako ekarpenekin agiri bat landuko du eta hori Udalbatzari helaraziko dio onetsi dezan.

***5. BEHIN BETIKO ONESPENA***

Agiria behin-behinean onetsi ondoren, **Eusko Jaurlaritzara** bidaliko da eta hark agiria aztertu eta egokiak diren **txostenak** landuko ditu. Jasotako oharrekin, idazketa-taldeak lana Udalari entregatuko dio horrek behin betiko onar dezan (Gipuzkoako Foru Aldundia). Behin betiko onetsi ondoren **edukia argitaratuko da** eta **indarrean egongo da**.

# UDALERRIAZ GAINDIKO PLANGINTZA

Maila altuagoko planak dira. Ez dira plangintza xehe batean kontzentratzen, hori da Herri Antolamendurako Plan Orokorren berezko zeregina, aitzitik, Udal Plangintzaren oinarri izan behar duten jarraibide batzuk markatzen ditu. Jarraibide arautzaile horiek ondarearen babesa, ingurumena, ura, errepideak, mendiak eta abarri buruzkoak dira.

## LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK (LAG)

LAGek etorkizunean ingurumen, baliabide natural, paisaia, hiri-espazio, industrialde eta landa-eremu, azpiegitura eta ekipamenduen arloetan eta geure ondare historiko eta kultural zabalaren inguruan jarduteko oinarrizko ardatzak ezartzen dituzte. Beren jarduera-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) da. Honako helburuak dauzka:

- ***Baliabide naturalak babestu eta hobetzea.***
- ***Herri eremuak sendotu eta orekatzea.***
- ***EAE Europan hobeto integratzea lortzea.***
- ***Kokaleku sistema hobetzea.***
- ***Lurraldearen eskala ertaina sustatzea.***



## UROLA-KOSTAKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN PLAN PARTZIALA

Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduaren Legearen arabera, Lurralde Plan Partzialek Lurralde Antolamenduren Gidalerroak garatzen dituzte horiek zedarritzen dituzten udalerriaz gaindiko eremu edo alorretan, eta horietariko bakoitzerako antolamendu-irizpide zehatzak ezartzen dituzte Gidalerroen arabera.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek EAEn 15 eremu geografiko zehazten dituzte. Eremu horiek Eremu Funtzionalak deitzen dira eta irizpide geografiko, ekonomiko eta sozialen arabera bereizten dira. Beren neurria eta egituragatik funtsezkoak dira lurralde-antolamenduko arazoak aztertu eta programak ezartzeko.

**ZESTOA, beste udalerri batzuekin batera, UROLA-KOSTAko *Eremu Funtzionalaren*** barne dago.



## LURRALDE PLAN SEKTORIALAK

Lurralde-plan Sektorialak Eusko Jaurlaritzaren sailek lantzen dituzte (lurralde arloan eragina eta eskumenak dituztenek), eta sektore mailan lurralde-antolamendurako gidalerroak garatzen dituzte. LPS hauek garatu dira:

- ***EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala***
- ***EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala***
- ***EAEko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala***
- ***EAEko Trenbide-Sarearen Lurraldearen Arloko Plana***
- ***EAEko Ekonomi-Jarduetarako lurzoru publikoa eta merkataritza-ekipamenduak sortzeko Lurralde Plan Sektoriala***
- ***EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala***
- ***EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala***
- ***Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegituretako Lurralde Plan Sektoriala***
- ***Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala***

# UDALERRIAZ GAINDIKO PLANGINTZA

**LPP**




**HAPO**

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*

ZESTOAKO UDALA

*AURKEZPENA*

# UDALERRIAZ GAINDIKO PLANGINTZA

**HAPO**

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*

*EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala*



*EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala*



ZESTOAKO UDALA

# BESTE BALDINTZAPEN SEKTORIAL BATZUK

**Kutsatutako egon daitezkeen Lurzoruak.**



**Uholde arriskua.**



**Eta abar.**

# PARTE-HARTZEA



Zestoako Udala
Ayuntamiento de Zestoa

# ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

2018ko apirilak

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

# PARTE-HARTZEA

HAPO

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*



| ERREDAKZIO-FASEA | AURREIKUSITAKO EKINTZAK | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA** | **PARTE-HARTZE TEKNIKOA** | **HIRITARREN PARTE-HARTZEA** | **DOKUMENTUAREN PUBLIZITATEA** |
| **A-1 Fasea – Herritarrek parte-hartzeko programa** | | Txostenak eskatu. | Prozedura azaltzeko hitzaldia.<br>Hitzaldi bat egingo da erredaktore-taldeak bere burua aurkeztu ahal izateko eta azaltzeko zer den HAPO bat, zein den Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako prozedura, udalaz gaineko mailako plangintzaren afekzioak, eta abar.<br>Herritarren Parte-Hartze Programaren edukiaren berri emango da eta parte-hartzearen garrantzia nabarmenduko da. | |
| **A-2 Fasea – Informazio eta diagnostikoko dokumentua** | Landa-lana tokiko kolaborazioarekin. | | Aurre-lanak azaltzeko hitzaldia.<br>Saio bat egingo da udalerriaren egoera ikuspegi guztietatik aurkeztuz, ikusten diren gabezia eta behar guztiekin. | |
| | Elkarrizketa pertsonalizatuak herriaren adierazgarri diren gizarte eragileekin. | | Aurre-galdetegia:<br>Hiritarrei egindako inkesta baliabide digital eta postontzi fisiko bitartez. | |
| | Laneko bilerak. | | | Laburpena eta oihartzun ematea. |
| | Egindako dokumentuaren berrikuspena eta ekarpenak. | | Ebaluazio-lantegiak:<br>Gutxienez bi lan-saio tematiko Planaren gidalerro nagusiak eztabaidatu eta aztertzeko. Lanerako foro tematikoak eratuko lirateke (etxebizitza, jarduera ekonomikoa, mugikortasuna, hiri-kalitatea, lurraldea, ingurumena, etab.). | Web-ean dokumentuak eskuragarri izatea: HAPOren prozedurari buruzko webgune berezia eta sare sozialetako profila eratzea eta irekita edukitzea behin betiko onarpenera arte, prozedura guztian zehar eguneratua izanez. |
| **A-3 Fasea – Hasierako agiria** | Oinarrizko Dokumentu baten eraketa aurreko sintesi txosteneko alternatiba edota erredaktore-taldearen proposamen ezberdinekin, Hasierako agirian eztabaidatu ahal izateko. (Beharrezkoa balitz). | | | |
| **A-4 Fasea – Aurrerakina eta Ingurumen Agiri Estrategikoa** | Landa-lana tokiko kolaborazioarekin. | | Aurrerakina azaltzeko hitzaldia.<br>Informazio saioa. Zuzendaria, aholkulari juridikoa eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko prozedurako arduraduna | |



ZESTOAKO UDALA

AURKEZPENA

# PARTE-HARTZEA

**HAPO**

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*

**AURREIKUSITAKO EKINTZEN PLANIFIKAZIOA:**

| FORO HONERA ZUZENDUA | JARDUERA | KODEA | KOMUNIKATZEA/INFORMATZEA | PARTE HARTZEA/HAUSNARTZEA | KONTSULTA/EZTABAIDA | BUELTATZEA/KOMUNIKATZEA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A-1 FASEA – HERRITARREK PARTE-HARTZE PROGRAMA** | | | | | | | |
| Udal teknikariak<br>Udalbatza | Herritarren Parte-Hartze Programa egitea | HPP | | | | | Erredaktore taldeak lizitazio proposameneko (hasierako diseinua) parte-hartze tresnen zabaltzea, berrikustea edo egokitzea proposatuko du, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108 artikuluan aurreikusitako dokumentua behin betiko zehazteko (behin betiko diseinua).<br>Bere zehaztapena kontrastatuko da, behingoz, udal teknikariekin eta Udalbatzarekin.<br>Foro bakoitzean (Orokorra eta Estrategikoa) inplikatutako eragileen lehen zerrenda bat egingo da: elkarteak, erreferentziazko erakundeak, etab. |
| **A-2 FASEA – INFORMAZIO ETA DIAGNOSTIKOKO DOKUMENTUA** | | | | | | | |
| Parte-hartze honen helburua HAPOren idazketa prozedura hasi denaren berri ematea da, lehenego fasearen emaitza azalduz: bildutako informazioa, udalerriaren diagnostikoa eta erredaktore-taldeak ateratako ondorioak.<br>Era berean, kontrastatu nahi da hiritar eta inplikatutako eragileekin HAPOren ondorengo faseetarako diseinatutako Herritarren Parte-Hartze Programa.<br>HAPOren hasiera hasieratik hausnartuko da deskribatzen diren parte-hartzen ekintzen garapenaren egokitasunari buruz. | | | | | | | |
| Orokorra<br>Estrategikoa | Aurreko hitzaldia 1 | AI1 | | | | | Hitzaldi bat antolatuko da erredaktore taldeak bere burua aurkez dezan eta azaldu udal mailaz gain dagoen plangintza, zer den HAPO bat, zein da Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko prozedura eta plangintza genero ikuspegitik.<br>Hiritarren Parte-Hartze Programaren edukiaren berri emango da eta parte-hartzearen garrantzia azpimarratuko da. |
| Orokorra<br>Estrategikoa | Aurreko hitzaldia 2 | AI2 | | | | | Udalerriaren egoera ikuspegi guztietatik zein den erakusten duen saio bat egingo da, ikusten diren gabeziak eta beharrak azalduz. |
| Hiritarrena | Triptikoak buzoneatu 1 | TB1 | | | | | Triptikoak buzoneatuko dira ondokoa azaltzeko: zer den HAPO bat, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko prozedura zein den, udal mailaz gain dagoen plangintza, zein da eta plangintza genero ikuspegitik, etab.<br>Hiritarren Parte-Hartze Programaren edukiaren berri emango da eta parte-hartzearen garrantzia azpimarratuko da. |
| Hiritarrena | Inkesta orokorra 1 | IK1 | | | | | Hiritarrei zuzendutako inkesta baliabide digital eta buzoi fisikoen bitartez, telefono bidezko gutxieneko muestreo bat eginez.<br>Aurreko aurrerakinari buruzko galderak sartuko dira. |
| Estrategikoa | Banakako elkarrizketak | BE | | | | | Banakako elkarrizketak udalerriko kolektibo-talde eta sentsibilitateen adierazgarri diren pertsonekin. |
| Auzoak<br>Tokiko elkarteak<br>Ekonomia-jarduera | Taldeko elkarrizketak | TE | | | | | Taldeko elkarrizketak udalerriko ac |
| Orokorra<br>Estrategikoa | Webgunea eta sare sozialak eratzea | WEB<br>SS | | | | | HAPO egiteko prozedurari buruz v<br>eta irekiak mantendu behin betiko<br>osoan zehar. |
| Orokorra<br>Estrategikoa | Esposizio panelak | EP | | | | | Hiritarren parte-hartze proiektuaren<br>azaltzeko panelak: zer den HA<br>prozedura zein den, udal mailaz g<br>genero ikuspegitik, etab. |

***ADIBIDEA. Fase guztietan parte hartzeko ekintzak planifikatuta daude***

## NOLA PARTE HARTU?

- HITZALDIAK
- INKESTAK
- ...
- TAILERRAK
- DIPTIKOA
- WEBGUNEA
- BANAKAKO ERANTZUNA
- IBILDALDIAK
- ERAKUSKETA-PANELAK
- PRESTAKUNTZA-SAIOAK
- ARGITALPENAK
- INFORMAZIO-PUNTUA
- BANAKAKO ETA TALDEKAKO ELKARRIZKETAK
- IRADOKIZUNEN POSTONTZIA

ZESTOAKO UDALA

# PARTE-HARTZEA

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Erakundeek, herritarrek eta erakunde parte-hartzaileek azal dezaketen iritzi publikoa haztatu nahi da, Udalerriaren etorkizunaren inguruko iritziak, jarrerak eta ikuspegia antzemateko. Laburbilduz, arazoak antzeman nahi dira. Asmoa horixe izanik, parte-hartzeak honakoak landuko ditu:

## ERAKUNDEEN ETA TEKNIKARIEN PARTE-HARTZEA

Idazketa-taldea eta tokiko eragileen arteko eztabaida bat da, udalerriaren egungo egoera eta etorkizuneko ikuspegia aztertu eta baloratzeko. Eragile horiek ordezkaritzat jotzen dira udalerrian duten garrantzia edo eraginagatik. Beren parte-hartzearekin honakoak ezagutzea lortu nahi da:

### *1. ZURE UDALERRIA (Ikuspegi orokorra)*

Lehenenik eta behin, helburua **jarraibide orokorrak** markatzea da, hots, Plan Orokor berria idazterakoan norantz jo nahi den adieraztea. Helburuak, besteak beste, honakoak dira:

- Hiri-antolamenduaren beharrekin eta Udalerriaren hazkuntzarekin lotutako jarrerak antzematea.
- Herri-eredurik egokiena eta ezarpen formularik aproposena zeintzuk diren antzematea.
- Azpiegitura eta ekipamendu berriekin lotutako eskaera berriak antzematea.

### *2. ZURE AUZOA (Tarteko ikuspegia)*

**Aurrerakin Fasean** ere **ikuspegi orokorraren** gaineko ideiak garatzen dira. Planak gero zehaztu beharko duenaren irudi generiko –baina behin betiko- bat lortu behar da. Hemen parte-hartzeen bitartez proposamenak egitea lortu nahi da. Ekarpenak egin behar dira, eta asmo orokor globaleko agiri batzuk sortu.

### *3. ZURE LURZATIA (Ikuspegi partikularra)*

**Hasierako Onespen Fasetik** aurrera, **proposamen partikularretan** xeheki sakontzen da, lehenago Aurrerakin fasean markatutako jarraibide orokorrak betez. Une honetan hasi behar da xeheki ñabartzen Zestoako errealitateari dagokionez

# PARTE-HARTZEA

**HAPO**

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*




ZESTOAKO UDALA

**HAPO**

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*

ZESTOAKO UDALA

# GALDETEGI OROKORRA **HAPO**

*Lagun gaitzazu Zestoako Hiri Antolamendu Plan Orokorra zehazten!*

**2018ko ekaina**

### GALDETEGIA BETETZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Izena*** *(aukeran)* | | | ***NAN*** | | | ***Sexua*** | G / E | |
| ***Egoera*** | Herrian bizi da | Bai / Ez | Etxebizitzaren jabe da | Bai / Ez | Lokal edo jarduerako establezimendu baten jabe da | Bai / Ez | | |
| ***Adina*** | 20 urte edo beherago | | 21 eta 45 urte artean | | 46 eta 65 urte artean | | 66 urtetik gora | |
| | ***Lanbidea*** | | | ***Sinadura*** | | | | |

*(Bildutako datuak estatistikarako erabiliko dira soilik, Zestoako HAPOaren idazte prozedurarako. Indarrean dagoen datuen babesari buruzko legeriaren arabera, jakinarazten da izaera pertsonaleko datuak EZ direla pasatuko ERDU SL edo Zestoako Udalaren inolako fitxategira.*

### AURKEZPENA

Udalerriaren etorkizuneko hirigintza-antolaketaren zehaztapena lan tekniko bat da. Bertan ikuspegi ugari eta konplexuak batzen dira, legezkoetatik hasita arloko plan ezberdinen integraziora arte.

Baina kontutan hartu behar da herritarren parte-hartzea ere bultzatu behar dela, era horretan, ahal den neurrian herriaren beharrak eta nahiei erantzuna emateko (EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108.-110. artikuluak).

Aipatutako legezko araua betez, Zestoako Udalak Herritarren Parte-Hartze Programa onartu du. Bertan zenbait ekintza aurreikusteen dira HAPOaren berrikuspeneko lanen berri emateko eta herriko auzokideen parte-hartzea bultzatzeko .

Aipatutako Programan aurreikusitako ekintzetako bat herritarrei, etxebizitza, lokal, jarduera eta zerbitzu establezimenduetako jabeei zuzendutako Galdetegi Orokorra da. Bere helburua, HAPOa egiteko prozedura hurbiltzea da, eta herriari buruzko lehen diagnosia egitea.

Zestoako Udaletik herritarrak animatu nahi ditugu Galdetegi Orokor hau betetzera. Aldez aurretik eskertzen dugu eskainiriko denbora eta dedikazioa.

**Galdetegia bete ondoren, eraman Zestoako Udaletxera**

***Epea: irailak 15!***

ZESTOAKO UDALA

ZESTOAKO UDALA

### GALDETEGI OROKORRA (JARRI "X" ZURE USTEZ EGOKIENARI)

1. Zure ustez, zeintzuk dira **HAPOa berrikusteko arrazoi** nagusienak? Gehienez 3 aukera markatu.

_ Errealitate sozio-ekonomikoa zeharo aldatu da, eta HAPOak hori islatu behar du.
_ Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan (AS) planteatutako hazkunde guneak berrikusi beharra dago.
_ Plan Orokorrak hobeto aprobetxatu behar du egun dagoen hiri-lurzoru finkatua.
_ Hobeto babestu behar da ingurune naturala.
Beste batzuk: ……………………………………………………
_ Uste dut ez dela beharrezkoa udalerriko Araua Subsidiarioak berrikustea eta Plan Orokorra egitea.

2. Zure ustez, zein **helburu** izan behar ditu Zestoako HAPO berriak? Gehienez 3 aukera markatu.

_ Hirigunearen handitzea eta zabaltzea proposatu, lurzoru naturalak okupatuz.
_ Hobetu eta osatu aldez aurretik dauden hiri-bilbeak, lurzoru berriak okupatu beharrean.
_ Ingurune naturala eraikitzeko presiotik babestu eta bere kontserbazioa bultzatu.
_ Bizitegirako kalitate handia eskaini.
_ Industria-ehuna/industriaguneak mantendu eta bultzatu.
_ Herriko instalazio ezberdinen gabezia arazoak konpondu, beharrezkoa bada.
Beste batzuk (esan zeintzuk): ……………………………………………………

3. Zure ustez, zeintzuk dira HAPOak landu behar dituen **gai edo arazo nagusienak**? Gehienez 6 aukera markatu.

_ Indarrean dauden ASetan ezarritako etxebizitzen programa berrikustea: ikusi ea egokitzen den gaurko errealitatera.
_ Jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaintza berrikustea: aztertu ea egokitzen den gaurko errealitatera.
_ Funtzioak sektorizatu eta banatzea (etxebizitzak ekonomikoetatik, zuzkidura-poloak, merkataritzakoak …).
_ Erabileren nahasketa bultzatzea (etxebizitza/biltegiak/jarduera ekonomikoak), agian eraikin berean ere.
_ Hirugarren sektoreko jarduerak bultzatzea landa eremuan.
_ Bizitegirako jarduketa berrien planifikazioa.
_ Aldez aurretik dauden eraikinetan arreta jartzea eta horien birgaitzea, duten antzinatasunagatik.
_ Hutsik dauden etxebizitzak.
_ Jarduera ekonomikoetarako edo industriarako hutsik dauden eraikinak (hotelak, industria, etab.).
_ Guztiz eraiki gabe dauden eraikuntzak (erdi garatutako eremuak).
_ Zestoako hirigunea bultzatu zuzkidura eta merkataritzarako ardatz bezala, eta kanpoko aldeko auzoak ez handitu.
_ Zestoako hirigunearen eta gainerako beste auzo batzuen arteko harreman aproposa ahalbidetu.
_ Jarduera ekonomiko berrien planifikazioa.
_ Jarduera ekonomikoak ezartzeko hirigintzako baldintzen malgutzea.
_ Aldez aurretik dauden zuzkidura eta gune libreen hobekuntza.
_ Zuzkidura eta zerbitzu berrien programazioa.
_ Aparkalekuen antolaketa.
_ Bide-sareak hobetzea eta esparru publikoaren urbanizazioa.
_ Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen diren errepideen inpaktua.
_ Irisgarritasuna hobetzea hirigunean eta auzoetan.
_ Herritarren aisialdirako gune gehiago eskaini.
Beste batzuk (esan zeintzuk): ……………………………………………………

4. Markatu zure ustez Plan Orokorrak kontutan hartu behar dituen **etxebizitzari buruzko** ikuspegiak

_ Hiri bilbea bukatzeko beharrezkoak diren etxebizitzak aurreikusi beharko lituzke soilik, lurzoru berririk okupatu gabe.
_ Garapen berriak aurreikusi beharko lituzke, aldez aurretik okupatu gabeko lurzoruetan, herria zabaltzeko.
_ Bigarren egoitzako etxebizitzarako jarduketak aurreikusi beharko lituzke.
_ Etxebizitzarako eraikin berriak kolektiboak izan beharko lirateke gehien bat (dentsitate altua, 5 solairu edo gehiagoko eraikinak).
_ Etxebizitzarako eraikin berriak kolektiboak izan beharko lirateke gehien bat (dentsitate ertaina, 4 solairu arte).
_ Etxebizitzarako eraikin berriak atxikiak edo familia bakarreko etxeak izan beharko lirateke gehien bat (dentsitate baxua).
_ Egun dauden den eraikinetan etxebizitzak bikoizten utzi beharko litzateke.

5. Zenbat **etxebizitza** aurreikusi beharko lituzke HAPOak hurrengo 10 urteetarako eta ze gune edo auzotan kokatuko zenituzke? Erreferentzia lurralde antolaketako tresnetan aurreikusitako gehieneko kopurua da: 400 etxebizitza. (*LAGen berrikuspena;* une honetan hasierako onarpena dute). Indarrean dauden Asetan aurreikusitako 491 etxebizitza egin gabe daude (421 libreak eta 70 babesekoak)..

_ Ez da etxebizitzarik aurreikusi behar. Daudenekin nahikoa da.
_ Aurreikusitako gehieneneko kopurua baino beste kopuru txikiago bat proposatuko nuke, adibidez, 200-250 etxebizitza.
_ LAGetan aurreikusitako gehienekora hurbiltzen den kopurua planeatuko nuke, hau da 400 etxebizitza inguru.
_ Indarrean dauden ASetan egin gabe daudenak garatuko nituzke, hau da, 491 etxebizitza inguru.
_ Aukera egongo balitz, are etxebizitza gehiago planeatuko nituzke, 491 etxebizitzatik gora.
Gune edo auzo hauetan planteatuko nituzke etxebizitzak: ……………………………………………………

ZESTOAKO UDALA

# HIZTEGIA

**EKIPAMENDUAK**
Adibideak: ikastetxeak, liburutegiak, kultur-etxeak, polikiroldegia…

**ESPAZIO LIBREAK**
Adibideak: plazak, parkeak…

**ZUZKIDURAK**
Adibideak: aparkalekuak, espazio libreak, ekipamenduak…

**EREMUA**

**BILBEA**

# ZESTOAKO HAPOA

## *ESKERRIK ASKO!*



**HAPO**
*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra*

ZESTOAKO UDALA

AURKEZPENA